

Pôle Inpact

2005ean sortua, Akitania Berriko InPACT 10 elkarteet osatua da. Herriar eta tokiko laborantxaren garatzea du helburu. Langile eta laguntzaile osatua den sareak egunerokan hautetsien, herritarren eta laborarien iniziatibak laguntzen ditu.

Zurkaitzak

2015az geroztik Iparraldeko laborantxa instalazioaren alde lanean ari diren elkarteak biltzen ditu : AFOG, EHEEE, Arrapitz, BLE CIVAM, EHLG, ELB Gazte -AFI, Lurzaindia, Trebatu.

XEHETASUNAK & IZEN EMAITEAK



Pôle Inpact Nouvelle Aquitaine
Virginie Moulia Pelat
06 37 62 29 36

Zurkaitzak
Mirentxu Auzqui - AFI&ELB Gazte
06 77 04 60 80
Thomas Erguy - BLE CIVAM
06 27 13 32 38
Frantxina Laborde - APFPB
06 74 42 48 59

Gozo Gosek egin baskaria
Leku an berean eskainia -
Abenduaren 7a aintzin lekua atxiki
Aterbea
Abenduaren 3a aintzin lekua
atxiki : Thomas 0627133238

TOPAKETA PROFESIONALA....

Zendako ?

Kolektiboan egiten diren instalazio manera desberdinen ezagutzeko, ulertzeko eta ikertzeko

Nola ?

Lekukotasunen, mahain inguruaren eta partaideen sintesiaren bidez

Norendako ?

Proiektu eremalle, laborari, Animatzaile, ikasle, erakasle, teknikari eta hautetsiendako

Nork antolaturik ?

Akitania Berriko INPACT eta ZURKAITZAK sareek antolaturik

Nun ?

Haize Berri
64120 Izura Azme
(herri erdian)



Nouvelle-Aquitaine



EAU GRAND SUD-OUEST
SOCIÉTÉ DE L'EAU ADULTE - GARÇONNE



Fondation
LÉA NATURE
JARDIN BIO
SOUS L'ÉGIDE DE LA FONDATION DE FRANCE



Kolektiboa Instalazioan Esperientzia trukaketa & perspektibak

2021ko abenduaren 10a, ostiralean
Izura - Azme (64120)
9ak30 - 14ak



Denei idekia !

1. esperientzia

Tournerie : etxalde 1 eta 11 lagun laborari

Limousin eskualdeko Haute-Vienne departamenduan kokatua den etxalde kolektiboa da Tournerie etxaldea. 2014ean, Terres de Liens-ek jabetzan dituen 83 ha lurretan plantatu ziren 11 lagun. Atelier eta ekoizpen frango egiten dituzte : fruitu, barazki, ahuntz eta behi gasna, xerriak, ogia, garagarno...

2. esperientzia

Xubialdea, mendiko 3 etxalde ttipik mendiko etxalde ttipi bat baino gehiago ballo dute

3 instalazio egiten diren mendi eskualdean ! Battitt, proiektuaren bultzatzaileak, amo soto bat eraikitzen du eta mahatigintzan konzentratzen, libre uzten dituen lurreetan, Sebastien erreka bazterrean baratze gintzan instalatzen da. Sylvain, etxaldeko oihan eta pentzeetan xerri hazkuntza eta sagartze batekin plantatzen da. Gogoeta eremaiten dute hiru etxaldeen autonomia eta elgarren arteko laguntzaren arteko orekaren inguruan.

3. esperientzia

Xuhito, lan tresna kolektiboa

CUMA formaren bidez mota ezberdin haragi transformatze tresna kolektiboa da. Tailer hunek bitartekaririk gabe beren mozkinen transformatzea ahalbidetzen die laborariari. Ibiltzeko, kideek beren artean, planifikatzen dituzte egunerokoaren ardurak (hornitzea, egutegia, garbiketa...), langile baten laguntzarekin.



Topaketaren egitaraua

9ak30 – Izurako Haize Berri egoitzan kafea

10ak-10ak45

Akitania Berriko instalazio kolektiboaren 6 esperientzien aurkezpena

Lekukotasuna, alde onak, mugak, segida

11ak-12ak30 :

ikerketa kolektiboaren egiteko mahain ingurua

Hiru problematiken inguruan

12ak30 – 12ak45 :

Sintesia eta lanaren segida

12ak45tik goiti :

Lekuko mozkinekin egin baskaria

Gozo Gosek eskainirik, solasen goxoki segitzeko

4. esperientzia

Garro SCIC-a, baratze gintzaz harat doan egitura !

Garro sozietate kooperatibak 10 urte ditu. SCIC forma juridikoa duen etxalde hunek baratze gintza aktibitatean ari da eta berezitasuna du kolektibo pribatuak (beste baratze zain batzu, garapen elkarteak) eta publikoak (formakuntza zentro, herri, herri elkargo) eremaiten dutela. Hastapenean baratze gintzaz ari baziren 4 langile kooperatibakideak eta apendizak, orain arto gorria, fruituak eta landare biologikoak ekoizten dituzte.

5. esperientzia

Belêtre-ko SCOP-a, bi hitzez

Indre-et-Loire departamenduan kokatua da Beletre-ko SCOP-a eta forma juridiko hau hartu duten lehen etxaldetarik bat izan da. 5 kideendako zentzuzko hautu militantea izan da. Hastapeneko etxaldea (hazkuntza eta zerealak), bi zati desberdin bilakatu da laborari-ogi egile eta baratze gintzan ari den kolektiboaren instalazioekin.

6. esperientzia

Aupa Haranea GAEC-a !

Azken 15 urteetan Martine, Christian eta Gilles hiru laborariak osatzen dute Haranea Gaec-a. Kintoa xerriak, Ezpeletako biperra, oilasko eta oilo erruleak eta arto gorria etxe ekoizpenak ekoizten dituzte. Ibilmolde kolektiboan.

Esperientzia bonus (bideoz)

Terracoopa, enplegu eta aktibitate kooperatiba (34)

Ingurumen eta laborantza arloko enpleguen artean partekatua den enpresa da Terracoopa. Terracoopak kuadro juridiko bat eskaintzen die proiektu eremaiter, beren abantail sozialen atxikitzea ahalbidetuz, irriskuak mugatuz, kontabilitatea, formakuntza, saretzea proposatuz... hori guzua eta aintzez gehiago !